

@@@EDIKTUA, Gizarte Gaietako sailburuordearena, N-2009-20-13101 espedienteari buruzkoa.@@@

Fernando Fantova Azcoaga jaunak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordeak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Ahaleginak egin diren arren, ezinezkoa izan da XXXXXXXXXXXXXXXX andreari jakinaraztea N-2009-20-13101 espediente delata eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoren ebazpena, espedientean ageri den helbidean. Errekurtso hori 118/2007 Dekretuaren II. kapituluan ezarritakoaren arabera izapidetu da (118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa).

Aipatutako espedientean emandako ebazpenaren testu osoa eskuragarri du interesdunak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzan (Donostia kalea, z.g., 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpena, gora jotzeko errekurtsu bat ezestekoa denez gero, ediktu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinarazten da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.5 artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako xedapen konkordanteetan xedatutakoa betetzeko.

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoa betetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 29a.

Gizarte Gaietako sailburuordea,
FERNANDO FANTOVA AZCOAGA.